

HIZKUNTZA, HITZAK BAINO
ZEOZER GEHIAGO

HIZKUNTZAREN ERABILERA
EZ-SEXISTARAKO PROPOSAMENAK

Gizarte Gaietarako Ministerioko Emakumearen Institutuko NOMBRA Batzordeak prestatutako gomendioetan agertzen diren proposamen eta adibideetako batzuk erabili dira dokumentu hau egiteko.

Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren lankidetzarekin, zeinek dokumentuko edukien alderatze lan bat burutu baitu.

IZENBURUA:	"Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak"
EGILEA:	Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.
ITZULPENA ETA EGOKITZAPENA: MAKETATZAILEA ETA KOORDINATZAILEA:	I.V.A.P./Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea Ana Rincón
DATA:	Martxo, 1988
ALE ZENBAKIA:	4.000
DESKRIBATZAILEAK:	hizkuntzaren erabilera sexista, euskera
AZALEKO ILUSTRAZIOA:	Iñigo Ordozgoiti
BARRUKO ILUSTRAZIOA:	Nuria Ponpeia
FOTOMEKANIKA:	Rali, S.A. Particular de Costa 8-10. Bilbao
INPRIMAKETA:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51. 48970 Basauri. Bilbao
ISBN:	84-87595-70-7
LEGE GORDAILUA:	BI-595-98

AURKEZPENA

Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboen II. Planak berriro ere gogorarazten du behar-beharrezkoa dela gure hitz egiteko eta idazteko modua aldatzea, bai emakumezkoek bai gizonezkoek gure gizarteari egin dioten eta egiten dioten ekarpena agerian gera dadin, eta guztiok errespetu eta aitortza bezalako ekarpen hori.


Gai horrek iritzi kontrajarriak sortarazten ditu. Alde batetik, hizkuntzaren erabilera sexista garrantzi gutxi kontua dela uste dute batzuek, "hobe lukete arduraz handiagoko kontuetan ahalegintzea"; eta, bestetik, beste batzuek ez dute uste hizkuntza gaizki erabiltzen ari denik emakumezkoen kaltetan, "hori tontakeria!, ez dago zertan erabilera aldatu!".

Nolanahi ere, hizkuntza ezinbestekoa da gizakien garapenean, eta hori bi arrazoiengatik: oso lotuta dagoelako pentsakerarekin, eta errealitatea, izendatu bai, baina interpretatu eta sinbolikoki sortu ere egiten duelako. Ugari dira hori azaltzen duten ikerketak.

Egia da gure gizartean aurrera egin dugula nabarmen; hala ere, oraindik ere gizon eta emakumezkoen artean modu batera edo bestera baloratzen dituen balio-sistema, portaera-eredu eta eginkizun ezberdinak aitortzen zaizkie. Hori, jakina, traba eta eragozpen baino ez da aukera-berdintasunera heltzeko eta gizakien garapen osorako, gizaki horiek sexu batekoak zein besteak izan. Hizkuntza, gizartea eraikitzeko tresna den aldetik, egoera horren isla da; are gehiago, batzuetan egoera hori areagotu egiten du. Dena dela, lanabesa ere izan daiteke, oraingo egoera irauli eta azpiko gora jartzeko.

Horrenbestez, liburuxka honen helburuak honako hauek dira: hizkuntzak nortasunaren garapenerako duen garrantzia ezagutaraztea; bideak proposatzea sexismoak eta androzentrismoak eragindako hizkuntzaren erabilera okerrari antzemateko eta zuzentzeko; eta, azkenik, irakurlearen hausnarketarako pizgarri izatea, aldaketaren aldeko jarrera izan dezan eta hitz egiteko eta idazteko ohiko modua hobetzen saia dadin.

Esan behar da, hala ere, hizkuntzaren erabilera proposatzen diren aldaketak pixkanaka-pixkanaka egiten direla, eta erabilera hori aldatzen ari diren herritar gehienak konturatu ere ez direla egiten horretaz. Alde horretatik, ezinbestekoa dugu erabilera berria gero eta zabalagoa izatea, eta, horretarako, funtsezkoa da Euskal Administrazio Publikoak, herritarren zerbitzurako baitago, erabilera hori bultzatu eta aldaketaren eredu eta jarraibide bihurtzea. Horretaz gain, gizarte eragileen partehartzea ere beharrezkoa da, eta, hitz batean, baita euskal gizarte osoaren oniritzia ere.

A handwritten signature in black ink, enclosed in a hand-drawn oval. The signature appears to read "Iñaki Oteiza". A long, wavy line extends from the bottom of the oval.

EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

HIZKUNTZAREN GARRANTZIA

Hizkuntza gure eskura dagoen zeinu-sistema bat da, eta beraren bidez aditzera eman dezakegu ikusten, sentitzen eta pentsatzen duguna. Gauza guztien gainetik komunikabide bat da, eta, hortaz, gure zerbitzura dago.

Hala eta guztiz ere, hizkuntza ez du gizakiak sortzen, baizik eta gizaki horren baitaren zati eta ezaugarrietako bat da. Hori dela-eta, hizkuntza gizarteak eta historiak sortutakoa denez gero, gure pentsamoldea baldintza-tzen du eta munduari buruz dugun ikuspegia mugatzen.

Hizkuntzaren bidez errealitatea izendatzen dugu, etiketak jartzen; baina errealitate hori interpretatu eta sinbolikoki sortu ere egiten dugu, abstrakzioak jarrita. “Sagarra” hitza entzun eta bakoitzari gauza bat bururatzen zaio: sagar gorria, berdea, handia, txikia, harrak jotakoa... Ez dago “sagarrik”; hori guztiori halako burutazioa da, gure erreferentzi puntuaren eta kulturaren arabera era batera edo bestera sortutakoa. Hitz abstraktuak gogoan, are nabarmenagoa da “errealitatea sortze” hori.

Beraz, burutazio horiek egitea errealitatea sinbolizatzeko prozesu bat da eta prozesu horrek berebiziko garrantzia du norbanakoaren nortasuna eta gizartearen jarrera finkatzerakoan. Hori horrela, zer izendatzen dugun eta nola izendatzen dugun, gure mezuaren hartzaileari errealitatearekin gutxi gora-behera bat datorren irudi bat etorriko zaio burura.

Adibidez, hau esaten badugu: “Jonek arrosa-sorta bat bidali du”, seguraski betiko lore-sorta bururatuko zaigu, alegia, arrosa gorridunena. Beste hau esaten badugu, berriz: “Jonek arrosa-sorta ederra bidali du, arrosa urdin, berde, hori eta zuriekin”, oso sorta ezberdina etorriko zaigu burura, eta gainera, errealitateari buruz genuen ideia aldatu egingo da, izan ere orain arte ez genekien arrosa urdin edo berderik zegoenik. Lehen esaldia erabiliz gero, ohiko koloreko arrosez gain, bestelakorik ere badagoela ezkututzen eta gordetzen ari gara.

ANDROZENTRISMOA ETA SEXISMOA: HIZKUNTZA GAIZKI ERABILTZEAREN ONDORIOAK

Begiratzeko modua gizartearen hainbat eragilek baldintzatzen dute: etnia, sexua, adina, erlijioa, ideologia. Androzentrismoa ere begiratzeko modu bat da, mundu-ikuskeraren bat. Sexuari dagokionez, honetan datza androzentrismoa: alegia, gizonezkoak erreferentzia gunetzat jotzean, eta emakumezkoak, berriz, haien menpeko eta agindupekotzat. Beraz, androzentrismoaren bidez gizonezkoak gauza guztien ardatz eta neurritzat hartzen ditugu. “Gizonaren historia” esatea, gizon eta emakume guztien historiaren hitz egin nahi dugunean, pentsamolde androzentrikoaren adibide garbia da. Gizon hitza erabilia ez dakigu emakumezkoak bertan sartzen diren, —hala balitz, ezkutuan geratuko liratenke—, edota, ez diren sartzen eta kanpo gelditu.

Aurrerago aztertuko dugunez, androzentrismoak, beste mundu-ikuskeraren eta mugatutako pentsamolde batzuekin gertatzen denaren antzera, eragin handia du hizkuntzaren erabileran.

Bestalde, sexismoa dago. Beraren bitartez, gizonezkoei eta emakumezkoei balio, gaitasun eta eginkizun ezberdinak aitortzen dizkiegu, bakar-bakarrik, euren sexuaren arabera. Hau da, gaitzetsi egiten dugu emakumezkoen egindakoa eta goraiatzeko gizonezkoen lana, azken batean hori delakoan ondo dagoena, “garrantzizkoa”.

Hizkuntzak, herri bateko kultura zabaltzeko tresna baita, unean uneko errealitatea isladatzen du; hala, hizkuntzak eta errealitateak elkarri eragiten diote. Hortaz, hizkuntza modu sexistan edo androzentrikoan erabiltzen dugu, kultura sexista eta androzentrista batean bizi garela, zeinetan baloratzen diren gizonezkoei aitorturiko gaitasunak eta eginkizunak, eta gu-txien emakumezkoei

aitortutakoak, gizartearentzat duten balioa bazter utzirik. Errealitate desorekatu hori hizkuntzaren bidez isladatzen dugu; are gehiago, areagotu egiten dugu arazoa, izan ere emakumeek gizartean dituzten zereginak errotik aldatu badira ere, gure mezuek oraindik ere alde bateko ikuspegia ematen dute, eta gizonen menpeko aurkezten dituzte emakumeak. Sexismoa ez dago hizkuntzaren baitan, gizon-emakumeen buruan baizik.

Ezin dugu hitz egin, beraz, "hizkuntza sexista"ri buruz, baizik eta hizkuntzaren "erabilera sexista"ri buruz, zeren eta hizkuntzak, hain oparoa eta aberatsa izanik, aukera ugari ematen baitu errealitate jakin bat deskribatzeko eta geure buruak imajina dezakeen guztia aditzera emateko. Gero, aukera horietatik guztietatik batzuk edo besteak hautatzen ditugu esan nahi dugunaren eta gure inguruaren arabera; baina, batipat, ikasi dugunaren eta kulturaren bidez geureganatu ditugun ideien, kontzeptuen eta estereotipoen arabera, hau da, errealitateaz dugun ezagueraren arabera.

Hala, hizkuntzak gure esku jartzen duen aukera kopuru handia kontuan, eta aukera horien artean hautatzeko dugun askatasuna dela-eta, ondorengo errealitateetako bat adieraz dezakegu:

- Errealitate sexista bat... (erantzukizuneko lanpostuetan emakume gutxi izatea)... modu sexistan edo ez.

SEXISTA:

"Alkate jaun guztiei egindako harreraren ondoren hasi zen bilera".

SEXISMORIK GABEA:

"Alkate jaun eta andre guztiei egindako harreraren ondoren hasi zen bilera".

- Sexismorik gabeko errealitate bat... (gurasoek semeak eta alabak izan ditzaketek) modu sexistan edo ez.

SEXISTA:

"Gurasoen ardura izango da euren semeei informazioa ematea".

SEXISMORIK GABEA:

“Gurasoen ardura izango da euren seme-alabei informazioa ematea”.

Horrenbestez, garbi geratu da den-denok zuzen erabil dezakegula hizkun-tza eta zehaztasun handiagoz adierazi esan edo idatzi beharrekoa. Hizkuntzak tresnak eskaintzen dizkigu; egokienak aukeratu baino ez dugu egin behar.



AKATSIK OHIKOENAK

ANDROZENTRISMOAK ERAGINDAKO AKATSIK OHIKOENAK

Besteak beste, honako hizkuntz erabilera hauek dira androzentrismoaren lekuko eta erakusgarri:

A) EMAKUMEZKOAK ERA BATERA EDO BESTERA EZKUTATZEA EDO DESAGERTARAZTEA

“Odola beharrezkoa da eta ezin daiteke egin, gizonarenak bakarrik salba dezake gizona” (odol gutxiko emakumeak!).

“Bileran zerbitzuko legegizon guztiak egon ziren” (bileran ‘legeandreak’ izanda ere).

“Erregeak Guggenheim museoaren inaugurazioan egon ziren” (Ekialdeko Errege Magoak ote?).

“Zerbitzuburu jauna: gutun honen bidez...” (Zerbitzuburuaren izena... Ixabel!).

Gizonak eta emakumeak aipatu nahian horrelako esaldiak erabilia, emakumeak gizarteko zenbait alor eta esparrutatik baztertzen ditugu; eta gainera, euren lana eta kulturari egiten dioten ekarpena ezerezean gelditu eta hutsaren hurrengo bihurtzen dira.

B) GIZONEZKOAK EKINTZAREN ARDATZ ETA ERREFERENTZIA GUNETZAT HARTZEA, ETA EMAKUMEZKOAK MENPEKO EDO AGINDUPEKOTZAT

“X. jauna erakusketara joan zen emaztearekin eta semearekin”.

“Zubizabal jaunaren andreak moda-desfilea ikusi zuen”.

“A. jauna larriki zaurituta geratu zen, aurrez zetorkion kamioi baten kontrako is-tripu baten ondorioz. A. jauna emaztearekin zihoan eta, horrek, gezurra badirudi ere, zauri arin eta kolpetxo batzuk baino ez zituen izan”.

Adibide horietan guztietan argi dago gizonak izaten direla azaldutako ekintzen erantzule eta protagonista. Emakumeak gizonen menpeko ager-tzen zaizkigu (emazte...), bigarren mailako ekintzen eragile, eta, behin edo beste, gizonen ondasunetarikoa bat bailiran.

SEXISMOAK ERAGINDAKO AKATSIK OHIKOENAK



Sexismoak ere eragina du hizkuntz erabileran:

A) NOLAKO SEXUA HALAKO TRATAMENDUA. EMAKUMEAK ADINGABEEN MODURA

GIZONEZKOAK

Jauna

Gizonak

EMAKUMEZKOAK

Andrea edo andereñoa
(egoera zibilaren berri ematen du eta uz-
tartu egiten ditu nolabait emakumeak eta
adingabetasuna eskubideei dagokienez
Neskak
(ez da harrizkoa honelako esaldiak aur-
kitzea: “Bi gizonak eta hiru neskek osat-
zen zuten lantaldea”. Andereño hitzarekin
gertatutakoa berriro ere: emakumeak gut-
xietsita

B) EZAUGARRI EZBERDINAK GIZONENTZAT (ADIMENARI LOTUAK) ETA EMAKUMEENTZAT (ESTETIKA)

Argazkian gizon talde bat ikusten da instalazio batzuk bisitatzen: “Kongresistak arreta handiz ikusi zituzten instalazio berriak zuzendariak lagundurik...” (be-
raiek erakutsitako arreta eta laguntzen zienaren kargua azpimarratzen dira).

Argazkian emakume talde bat ikusten da zentro bat bisitatzen: “Taldea dotorea bertaratu zen zentroran” edo “jendetza handia bildu zenen inaugurazioan. Emakumeak, dotore jantzita, ... (gizon edo emakumezkoak izan, honako edo halako ezaugarriak aitortzen zaizkie. Emakumeen kasuan estetikarekin zeriku-
sia duten kontuak aipatu ohi dira).

C) EMAKUMEA AIPATZEA DESKALIFIKATZEKO. AIPU IRAINGARRIAK EMAKUMEZKOEN



EDOTA BERAUEI AITORTZEN ZAIZKIEN BALIO, PORTAERA ETA JARREREN AURKA

“Olagarroa eta emakumea ‘astindu’ egin behar dira bigunagoak izan daitezen”.

“Beti berriketan, emakumeak bezala”.

“Txotxina hori!” (mika, txolina, txatxala eta horrelako adjektiboak, beti, emakumezkoentzako opari).

“Hango mina... eta hemengo mina esaten aritzen da beti emakumea”

“Hura zen marimutila hura!”.

“Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra”.

Badago modu bat erabilitako esapidea zuzena den edo ez jakiteko: eman buelta esaldiari, eta emakumezkoen tokian gizonezkoak jarri eta alderantziz. Esaldia ez dela egokia? Jatorrizko esaldia sexista den seinale.

HIZKUNTZA ZUZENAGO ERABILTZEA HELBURU

GURE MUNDU-IKUSKERA ALDATUZ GERO... HIZKUNTZA ERE ALDATU EGINGO DA

Orain arte ikusi dugunez, hizkuntza (dela idatzizkoa, ahozkoa edo irudizkoa) gure pentsamoldearen ispilua da, ekintzen, egoeren edo sentimenduen aurrean geure buruan daukagunaren isla: horretarako erabiltzen dugun lanabesa da hizkuntza. Horregatik, alegia, munduaz dugun ikusmoldea aldatzekotan, gure komunikazioaren zer-nolakoak ere aldatuko lirateke berehala.

Beraz, gizonen eta emakumeen ekarpenek gizartearentzat balio bera dutela aitortzeak emakumeen ekarpena aintzat hartzea ekarriko luke eta baita gizonezkoen bezalako protagonismoa dutela onartzea ere, beraien menpean eta bigarren mailan egotera kondenatu beharrean. Gure mundu-ikuskerak horrelakoa bada, ikuskera horrek baldintzatu egingo ditu gure mezuen edukiak.

Baina, ba al dago errealitatea aldatzerik, errealitate hori izendatzen duten hitzak aldatuta?



HIZKUNTZAREN ERABILERA ALDATUTA... ERREALITATEAZ DUGUN IKUSMOLDEA ERE ALDATU EGINGO DA

Prozesua mailakakoa da eta ez da norantza bakarrekoa. Hori kontuan, hizkuntzaren erabilera jakinaren gainean aldatzea lagungarri gertatuko da gure mundu-ikuskera eta gizonen eta emakumeen arteko harremanei buruz daukagun kontzeptua ere aldatzeko.

Hizkuntza, pentsakerarekin lotura dialektiko estua duenez, aldatu daiteke hezkuntzako eta kulturako ekintzen laguntzaz. Horretaz gain, eragin ona izan dezake giza portaeran eta errealitateaz daukagun ikusmoldean.

Dagoeneko esan dugu hizkuntzaren zereginetako bat errealitatea sinbolikoki aditzera ematea dela. Eta, jakina, adierazpenok behin eta berriro errepikatzeak sortu edo aldatu egingo du gure mundu-ikuskera. Horrenbestez, errealitatea bere osotasunean, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko irudia erakusten duen hizkuntzak bide eman dezake beste gizaki batzuek izan dezaketan ikusmolde partziala aldarazteko.

Ikusmolde sexista eta androzentrista horiek aldatzeko erritmoa gure partehartze aktiboaren araberkoa izango da.

Hortaz, ezinbestekoa da hizkuntzaren baitan aldaketa batzuk egitea emakumeak izendatu ahal izateko. Hizkuntzak ezaugarri asko ditu, baina berezkoenetakoa etengabe aldatzeko duen gaitasuna da. Tresna malgua da hizkuntza, gure beharretara edo zeozer komunikatzeko nahietara egokitzen dena. Eta, hain zuzen ere, horrexegatik izaten da hain aldakorra. Errealitatea aldatzen bada egoera berria eta tresna berriak daudelako edota ideia berriak aditzera eman behar ditugulako, eskuartean dauzkagun zeinuz baliatzen gara, euren esanahia egokituz edo zabalagotuz (adib.: soldatak "baretzea", ekonomiaren "loaldia"). Era berean oraingo hitzek ez badute balio azaldu nahi duguna adierazteko, hitz berriak asmatu edo beste hizkuntzetatik hartu eta moldatzen dira (adib.: ovnia, faxa, konputagailua...).

Garbi geratu da hizkuntzaren moldagarritasunak eta eskaintzen duen aukera

zabalak bide ematen duela aldaketa horiek gertatzeko; eta hori guztia, edertasuna, zuzentasuna eta ekonomia galdu gabe. Are gehiago, emakumeak izendatzeak mezu zehatzagoak eta zuzenagoak sortaraziko ditu, eta mezu horiek oraingo baino egoera bidezkoagoa ekarriko digute.

PROPOSAMEN BATZUK

HIZKERA ANDROZENTRISTA EZ ERABILTZEA

Lehen esan dugun moduan, zorionez, euskaraz generorik ez dugula-eta, ez



dugu auzo-hizkuntzek beste arazorik erabilera androzentrismaren auzian. Hala ere, komenigarria da hainbat ohitura saihestea, gizezkoek eta emakumezkoek agerpen-maila berbera izan dezaten.

A) GIZON/GIZAKI/GIZA


Gizon, *gizaseme* eta *gizonezko* hitzak gizezkoentzako bakarrik erabili; eta *gizaki*, aldiz, gizonak zein emakumeak izendatzeko edo generiko gisa. *Giza* erroitik sortutakoek (*gizarte*, *giza talde*...) ez dute *gizon* hitzak duen konnotaziorik; bietarako erabil daitezke, beraz.

Hitz-elkartuetako bigarren osagaia gizon denean (*legegizona*, *itsasgizona*...), -*ari* atzizkiak balia gaitzke lanbidea adierazteko (*legelaria*). Beste kasuren batean *langile* izan daiteke bide egokia (*itsaslangilea*).

B) HITZ-ELKARKETA

Emakumeren bat tartean badago, euskarak berezkoa duen joerari eutsi behar diogu: *aita-amak*, *senar-emazteak*, *seme-alabak*...

C) JAUNEN NAGUSITASUNA



Batzuetan, gure mezua nori helarazi nahi diogun oso ondo jakin ez, eta ohituraren ohituraz edo gaztelaniaren eraginez edota androzentrismoak bultzatuta, *jauna* hitza aukeratzen dugu. Hori horrela, idazki askoren goiburuan *zuzendari*, *sailburu*, *alkate*... *jauna* formula erabiltzen dugu, kargu horiek maiz emakumeek betetzen dituzten arren. Gogoan izan euskaraz *jaun-andre* bokatiboa badugula.

D) -SA ATZIZKIA

Atzizki hori daramaten hitz gehienak berriak dira eta asko eta asko maileguak (*artxidukesa*, *abadesa*...). Atzizki hori zubereraz dago bizirik (*artzain-tsa*, *laborarisa*, *jainkosa*, *alarguntsa*...). Mendebaldean, kargu jakin bat duenaren andrea aipatzeko erabili izan da (*alkatesa*).

Euskara baturako mugatu egin beharko litzateke atzizki horren erabilpena. Zenbaitetan, izen propioak berak emango digu sexuaren berri (*Alicia Alonso dantzaria*). Beste batzuetan, testuinguruak argibiderik ematen ez digulako-edo, mugatu beharrean izango gara, eta, horretarako, izen arruntetara jo (*emakume alarguna*, *neska dantzaria*...).

E) HITANOA

Erabiltzekotan, gogoan izan behar dugu hitanoak sexua markatzen duela eta, beraz, kontu handiz erabili behar dugula inor ez baztertzeko. Hortaz, ez inoiz erabili talde bati zuzendutako mezuan, baldin eta talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu.

F) KONTUZ BESTE MUTURRERA PASATZEAREKIN

Erdarazko testuak euskaratzerakoan arazo bat edo beste izan dezakegu, hizkera sexista saihesteko perifrasi bat topatzen dugunean. Kontua da, lantzean behin, perifrasi horiek beharrik gabe gordetzen ditugula jatorrizko testuari atxi-

kiegi jokatzen dugulako. Esaterako:

Triptikoa populazio erretzailearentzat eginda dago.

Testu honetan oso gauza bitxia ikus dezakegu: jatorrizko testua gaztelaniazkoa zen, eta, bertan, hizkera sexista saihesteko perifrasi bat egin zuten (*los fumadores la población fumadora*). Testua euskaratzean perifrasi gorde egin da, euskaraz horrelakoen beharrik ez dugula ahaztuta:

Triptikoa erretzaileentzat eginda dago.

HIZKERA SEXISTA EZ ERABILTZEA

Hori lortzeko ez dago formula magikorik. Aztertu behar dugu gure pentsamoldearen mugak non dauden, eta muga horiek zer-nolako eragina duten hizkuntzaren baitan. Edozein modutan ere, kontuan izan behar dugu, eta bete, zenbait puntu:


A) PERTSONARI DAGOZKION BALIOAK, TREBETASUNAK ETA GAITASUNAK AIPATZEA, PERTSONA HORI SEXU BATEKOA ZEIN BESTEKOA IZAN

Adibidez, zientzilarien bilera batean gizon baten profesionaltasuna aipa-tzen bada, ezaugarri horixe bera aipatuko da emakume baten kasuan, eta ez bere edertasuna edo jatortasuna, askotan egiten denez.

B) GIZON ETA EMAKUMEEI TRATAMENDU BERBERA EMATEA

Adibidez: *jauna, andrea*, eta euren izen edota abizenak (berdin kasu bietan).

Azken batean, helburua ez da formulak eta bideak aurkitzea matematikako arauak izango bailiran. Hizkuntzaren eta pentsamoldearen artean dagoen erlazio estua dela-eta, gure hizkera aldatuko dugu gaizki erabiltzen ari garela konturatzen garen neurrian, eta, era berean, horretaz konturatuko gara gure adierazmoduan aldaketak egiteko ahaleginak egiten ditugun neurrian.



HIZKUNTZAREN ERABILERA

EZ-SEXISTARI BURUZKO XEDAPENAK ETA ARAUAK

- 14.1/1987 EBAZPENA, UNESCOren Biltzar Orokorrak eginiko 24. bilkuran onetsitakoa, 2) lerroaldea, 1) idazatia.
- 109/1989 EBAZPENA, UNESCOren Biltzar Orokorrak eginiko 25. bilkuran onetsitakoa, 3. lerroaldea.
- GOMENDIOA, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 1990eko otsailaren 21ean onetsitakoa.
- EKINTZA KOMUNITARIOAREN 4. PROGRAMA, Gizonen eta Emaku-meen arteko Aukera Berdintasunerako (1996-2000).
- AGINDUA, 1995eko martxoaren 22koa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, ikasketa titulu izena titulatuen izaera maskulino nahiz femeninoari egokitzen zaiena.
- LEHENDAKARIAREN JARRAIBIDEA, 1994ko martxoaren 18koa.
- EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTEKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOEN II. PLANA. 1995.